

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

1053

AGINDUA, 2022ko otsailaren 24koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez bete gabe uzten baita Kultura Sustatzeko Zuzendaritzan goi-kargudunaren idazkari lanpostua izendapen askeko sistemaren bidez betetzeko deialdi publikoa.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 46. artikuluan xedatutakoaren arabera, honako hau

EBAZTEN DUT:

Bete gabe uztea goi-kargudunaren idazkari lanpostu hau: Kultura eta Hizkuntza Politika Sailko Kultura Sustatzeko Zuzendaritzan, 520010 zenbakiko kodea, 85. dotazioa.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du. Beraz, beronen aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsua aurkez dakioke agindua eman duen organoari, hilabeteko epean; edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsua Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari, bi hilabeteko epean. Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da zenbatzen errekurtsuak aurkezteko epea.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko otsailaren 24a.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,
BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI.